©Olariaga K



Plaza-giro Afaria hasi aurretik jartzen dira martxan sagardotegien sukaldeetan: sua piztu, txuletak hozkailutik atera, arrautzak irabiatu... Larre Gainen mimoz aritzen dira.

Txotx deiaren aurretik

Xabier Martin Hernani

Agirdi gaztaren usaina bakailao-arenarekin nahasten da Larre Gain sagardotegiko sukaldean. Sua piztu berria da erregailuan, eta haren ondoan behi txuleta ikusgarriak zain daude, tenperatura egokia hartzen. Urdaila hutsik edukitzea ez da komeni Ixabel Santakrutzen sukaldean. Mokadu ederrak daude edonora begiratuta ere. «Pare bat ordu lehenago hasten gara lanean», dio Santakrutzek; «mahaiak jarri, upelak prestatu, sua piztu, arrautzak irabiatu... bada zeregin pixka bat».

Aste barruan hiru lagunekin moldatzen dira Hernaniko Ereñotzuko sagardotegian; asteburuetan lauzpabost izaten dira lanean, ia beti familiakoak; Joxe Lasarte eta Ixabel Santakrutz senaremazteei seme-alabaren batek laguntzen die beti. Oraingoan Arnaitz gazteari egokitu zaio txanda, eta hasi da upelen gelan dena ondo dagoen ikusten. Ofizioa ederki ikasita dauka txikitatik.

Mahaikideak etorri bitartean sukaldean erritmoa azkartzen hasi da gutxika. Ikatz zati handiak jarri ditu etxekoandreak erregailuan, txingar indartsua behar baita kilo inguruko txuletak behar bezala erretzeko. «Lau lagunentzat edo izaten dira; nahi duenak gehiago eskatzen du gero», dio. Haragia bertakoa den galdetuta, irribarre txiki bat egin du Santakrutzek: «Zuk uste duzu Euskal Herrian nahiko haragi dagoela nahi duen guztiak bertako txuleta izan dezan? Bertakoak edo kanpokoak, txuleta hauek primerakoak direla esango dizut, horretan ez izan zalantzarik». Itxura ikustea besterik ez dago.

Erretzen ere ez dute eskarmenturik falta Larre Gainen. «Aurtengoa hamaseigarren urtea izango da; 1995ean egin genuen lehenengo txotxa». Jangela apaintzeko geratu den dolareaz galdetuta, «hor bertan egiten genuen sagardoa hasieran», bota du. Orain, berriz, upelak eta mahaiak banandurik daude. Upelen gela estu eta luzean hamaika upel daude, bakoitza bere izenarekin, modu dotorean inondik ere. «Denak irekitzen al dituzue?», galdera zuzena jaso du Arnaitzek. Erantzuna ere hala izan da: «Bai horixe». Upel desberdinetan sagardo desberdina dago, baina denak libre dastatzeko. «Hau edo hura irekitzeko eskatuz gero, nik ez daukat inolako problemarik zabaltzeko; esaten dute hemengo edo hango upela gordetzen dugula, baina guk ez dugu halakorik egiten».

Larre Gain baserri bakarti samarra da, benetako dolare-sagardotegia, eta bezeroen autoak iritsi aurreko isiltasun ilunean argi batzuk sumatu dira sukaldeko leihoetatik. «Okina da», esan du jabeak, hura atea gurutzatu aurretik. Ogiz betetako zakua sartu du sukaldera. Margolana kolore sorta interesgarria hartzen ari da: txuleten gorria, perrexilaren berdea, ikatzaren beltza, bakailaoaren zuria, ogiaren horixka... «Txotx!» deiarekin osatuko da obra aurki, sagardoaren kolore arrearekin. Aurretik lan apur bat geratzen zaie oraindik sukaldean. Ixabel Santakrutz serio hasi da zereginean. Bezeroek dute beti lehentasuna.


Ixabel Santakrutz Larre Gain sagardotegiko sukaldean lanean. Txuletak txingar indartsuen zain daude. XABIER MARTIN

berria
Larunbata
2010eko urtarrilaren 23a



Ez azaltzea

Azaltzea da kontua. Mundu guztiak nahi du telebistan azaldu. Ilusioa egiten du, inportante sentitzen da bat. «Ikusi zaitut telebistan», esango dizu jendeak, ez dakit nik, baina hala izango da. Kalean harrapatutako lehenengoari edozer galdetzen dioten saio horietako batean, marmarrean aritu zen gizon edadetu batek gozo-gozo galdetu zion gero kazetariari: «Hau noiz botako duzue?».

Nik nahiagoko nuke ez azaltzea. Ez inor baino gehiago naizelako, besteak bezalakoxea naizelako baizik.

Besteak bezalakoxeak garenok, ez aktore eder ez kirolari ospetsu garenok, aukera ugari dugu telebistan azaltzeko, albistegietan batik bat. Orain, aukera horiek ez dira oso tentagarriak. Eta gu baino bestelakoagoak direnek, berriz, pobreek, alegia, gaizki behar dute albistegietan azaltzeko: goseak akabatzen, miseria gorrian, edo hilda behar dute, albiste izan daitezen. Akordatzen Haitiko irudiekin?

Guk errazagoa daukagu, besterik ezean inguruan kamera gehiago ditugulako. Edozein ordutan eta edozein lekutan harrapa gaitzakete kamerek. Kale kantoian botaka, aireportuan lo, hondartzan luze-luze etzanda, errepide ertzean burua moztuta, edo parkean amodiotan, beti gara kameren bazka. Guk beti balio dugu estatistikaren bat ilustratzeko. Batzuetan, estatistikek iritzia eman dezaten nahi izaten dute, ordea, eta bertaraino etorrita kamera ahoko zuloan jartzen dizute. Eta ez dago ihesbiderik: ergela bazina bezala hartzen zaituzte, eta ergela bazina bezala azaltzen zara telebistan.

Horregatik nahi ditut kamerak urruti, horregatik nahi dut telebistan ez azaltzea. Ez azaltzea baita ondo zauden seinalerik onena.